



Honekin batera bidaltzen dut beheko gaia jorratzen duen araugintzako ebaluazio txostena, hala jasotzen baitu 6.4 artikuluan (uztailak 3ko 3/2013 Foru Arauaren bidez aldatua) Gipuzkoako lurralde historikoaren erakunde, gobernu eta administrazioari buruzko uztailearen 12ko 6/2005 Foru Arauak:

**1/2022 Foru Araua, martxoaren 10ekoa, 2022. urterako zenbait zerga aldaketa onesten dituena.**

De conformidad con lo previsto en el artículo 6.4 de la Norma Foral 6/2005 de 12 de julio, sobre Organización Institucional, Gobierno y Administración del Territorio Histórico de Gipuzkoa, modificado por Norma Foral 3/2013 de 3 de julio, se adjunta informe de evaluación normativa referido a:

**Norma Foral 1/2022, de 10 de marzo, por la que se aprueban determinadas modificaciones tributarias para el año 2022.**

**OGASUN ETA FINANTZA DEPARTAMENTUKO FORU DIPUTATUA  
EL DIPUTADO FORAL DEL DEPARTAMENTO DE HACIENDA Y FINANZAS**



## **Araugintzako ebaluazio txostena**

**1/2022 Foru Araua, martxoaren  
10ekoa, 2022. urterako zenbait zerga  
aldaketa onesten dituen**

### **Sarrera**

Covid-19aren pandemia hasi zenetik, larrialdiko hainbat zerga neurri hartu ziren, pandemiaren eragina ahal den neurrian murrizteko.

Alde horretatik, botere publikoei dagokie egoera sozioekonomikoa bultzatzen eta sendotzen saiatzea, lurralde historikoko produkzio ehunari oinarri sendoak eskainiz eta haien garapena maila teknologiko eta balio erantsi handiko eremuetara bideratuz, Gipuzkoako gizartearen etorkizuneko ongizatea bermatu ahal izateko.

2022aren hasieran, interesgarria zen aurreko urteetan onetsi ziren aldi baterako neurrietako batzuk beste urtebetez aplikatzen jarraitzea, osorik edo zati batean. Eta aldi berean,

## **Informe de evaluación normativa**

**Norma Foral 1/2022, de 10 de marzo,  
por la que se aprueban determinadas  
modificaciones tributarias para el  
año 2022**

### **Introducción**

Desde el inicio de la pandemia de la covid-19 se adoptaron diversas medidas tributarias de emergencia, para reducir en lo posible la incidencia derivada de la misma.

En ese sentido, corresponde a los poderes públicos tratar de impulsar y consolidar la situación socioeconómica, dotando de bases sólidas al tejido productivo del Territorio Histórico y orientando su desarrollo a campos de alto nivel tecnológico y valor añadido, que permitan asegurar el bienestar futuro de la sociedad guipuzcoana.

A comienzos de 2022, resultaba de interés continuar aplicando, total o parcialmente, y durante un año más, algunas de las medidas temporales que ya se habían aprobado en



beharrezkotzat jo zen neurri berritzaileak sartzea beste arlo batzuetan.

Horrela, aztertutako foru arauaren bitartez, indarrean zeuden neurri batzuk 2022ra luzatzeaz gain, aldaketak sartu ziren Gipuzkoako tributuen esparruko beste figura askotan.

Horien guztien artean, soil-soilik teknikoak direnez gain, edo interpretazioak argitzeko, edo igorpenak eguneratzeko, edo akatsak zuzentzeko, jarraian azalduko ditugunak azpimarra daitezke.

### **Pertsona fisikoen errentaren gaineko zergan**

2022ko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioekin, honako aldaketak sartzen dira:

#### **Lekualdatutako pertsonen araubide berezia**

Alde batetik, haren eremu subjektiboa bi arrazoi berritara zabaltzen da: lehenik,

años anteriores. Y al mismo tiempo, se consideró necesario introducir medidas innovadoras en otras materias.

Así, mediante la norma foral analizada, además de prorrogar para 2022 algunas medidas vigentes, se introdujeron modificaciones en otras muchas figuras impositivas del marco tributario guipuzcoano.

Entre todas ellas, además de las puramente técnicas, o de aclaración de interpretaciones, o de actualización de remisiones o de corrección de errores, caben destacar las que se exponen a continuación.

### **Impuesto sobre la renta de las personas físicas**

Con efectos a partir de 1 de enero de 2022 se introducen las siguientes modificaciones:

#### **Régimen especial de personas desplazadas**

Por un parte, se amplía su ámbito subjetivo a dos nuevos motivos: primero, para constituir



erakunde berritzaile sortu berrietan inbertsio bat egiteko edo eratzeko, eta, bigarrenik, arrisku kapitaleko sozietateak edo funtsak eratzeko.

Bestalde, salbuetsizat jotako lan errenten portzentajea %15etik %30era igotzen da, erregimenaren eraginpeko pertsonak jasotako lan etekin garbiak kalkulatzeko garaian.

Eta, azkenik, 5 urtetik 10 urtera luzatu da araubide berezia aplikatzeko epea.

### **Lan etekinak denboran egozteko erregela berezia**

Egungo araudiarekin, exigigarriak diren zergaldietan jasotzen ez diren lan etekinak, zergaldi horiei egozten zaizkie autoliquidazio osagarriak aurkeztuz.

Etekinak kobrantza egiten den zergaldiari egoztea proposatzen da, baina ahalbidetzen da zergadunak etekin horiek exigigarriak ziren zergaldiei egoztea.

o proceder a realizar una inversión en entidades innovadoras de nueva creación y, segundo, para la constitución de sociedades o fondos de capital riesgo.

Por otro lado, se eleva del 15% al 30% el porcentaje de rentas de trabajo exentas en el cálculo de los rendimientos netos de trabajo percibidos por la persona acogida al régimen.

Y por último, se amplía de 5 años a 10 años el plazo de aplicación del régimen especial

### **Regla especial de imputación temporal de los rendimientos del trabajo**

Con la normativa actual, los rendimientos del trabajo no percibidos en los periodos impositivos en que eran exigibles, se imputan a dichos periodos impositivos mediante la presentación de autoliquidaciones complementarias.

Se propone que la imputación de los rendimientos sea al periodo impositivo del cobro, aunque se posibilita que la persona contribuyente opte por imputarlos a los



periodos impositivos en que resultaron exigibles.

### **Kenkaria langileek beren entitate enplegatzailean parte hartzeagatik**

Zergadunek %15eko (gizonak) edo %20ko (emakumeak) kenkaria aplikatu ahal izango dute zergaldian dirutan ordaindutako kopuruetatik, entitate enplegatzaileko akzioak edo partaidetzak eskuratzeko edo harpidetzeko, baldintza batzuk betetzen dituztenean.

Baldintzetako bat da langileak ez izatea %20tik gorako partaidetzarik erakunde horretan. Orain, muga hori %40koa izatea proposatzen da.

Beste baldintzetako bat da pertsonak erosketaren aurreko 5 urteetatik gutxienez 3n erakundeetan lan egin izana. Orain gutxienerako hori 2 urtera jaistea proposatzen da.

### **Deducción por participación de las personas trabajadoras en su entidad empleadora**

Las personas contribuyentes se pueden aplicar una deducción del 15% (hombres) o del 20% (mujeres), de las cantidades satisfechas en metálico en el período impositivo, destinadas a la adquisición o suscripción de acciones o participaciones de su entidad empleadora, cuando cumplan una serie de requisitos.

Uno de los requisitos es que la persona trabajadora no posea una participación en esa entidad mayor del 20%. Ahora se propone que ese límite sea del 40%.

Otro de los requisitos es que la persona haya trabajado en la entidad un mínimo de 3 de los 5 años anteriores a la adquisición. Ahora se propone que bajar ese mínimo a 2 años.



### **Kenkaria langileek entitateak eratzeagatik**

2022ko ekitaldirako 2020an eta 2021ean indarrean dauden zenbatekoei eustea proposatzen da: gizonentzat %15eko eta emakumeentzat %20ko kenkariaren portzentajea (%10 eta %15aren ordeztuz, hurrenez hurren), eta 6.000 euroko muga gizonentzat eta 8.000 eurokoa emakumeentzat (1.200 euro eta 1.800 euro izan beharrez, hurrenez hurren). Era berean, erakundeak izan behar den gutxieneko partaidetza %40koa izango da, %75aren ordeztuz.

### **Aitortzeko betebeharra**

Proposatzen da 2022an luzatzea zerga autolikidatzeko obligazioa, 2020 eta 2021eko zergaldietarako ezarritako terminoetan.

Horrela, lan etekin gordinetarako ezarritako dagoen muga, haren kopurutik behera egonez gero aitortzeko obligaziotik salbuesten duena, 14.000 eurokoa izango da.

### **Deducción por la constitución de entidades por personas trabajadoras**

Se propone mantener para el ejercicio 2022 las cuantías vigentes en 2020 y 2021: porcentaje de deducción del 15% para los hombres y del 20% para mujeres (en vez de 10% y 15%, respectivamente) y los límites de 6.000 euros para hombres y 8.000 euros para mujeres (en vez de 1.200 euros y 1.800 euros, respectivamente). Asimismo, el porcentaje mínimo de participación que se debe ostentar en la entidad se mantiene en el 40% en vez del 75%.

### **Obligación de declarar**

Se propone prorrogar en 2022, la obligación de autoliquidar el impuesto, en los términos regulados para los periodos impositivos 2020 y 2021.

De esta manera, el límite establecido para la obtención de rendimientos brutos de trabajo por debajo del cual no existe obligación de declarar será 14.000 euros.



Gainera, zergadunek aitortzeko obligazioa badute ordaintzaile batetik baino gehiagotik 14.000 eta 20.000 euro bitarteko lan etekin gordinak jasotzeagatik, ezartzen da betebeharrorretatik salbuetsita geratzen direla baldin eta bigarren eta gainerako ordaintzaileetatik jasotako zenbatekoen batura, zenbatekoaren hurrenkerari jarraituta, urtean 2.000 eurotik gorakoa ez bada. Hau da, horrelakoetan, 20.000 euro bitarteko lan etekin gordinak jasotzen dituzten zergadunek ez dute aitortpena aurkeztu beharrik izango.

**Ondasun entregak eta zerbitzu prestazioak dokumentatzen dituzten fitxategien osotasuna, kontserbazioa, trazabilitatea, bortxaezintasuna eta igorpena bermatzeko sistema informatikoaren ezarpena sustatzeko kenkaria**

Epeak egokitu dira kenkaria aplikatu ahal izateko, ezarpen egutegi berrira egokitzeko. Horrek esan nahi du aplikazioa 2023ko abenduaren 31ra arte luzatzen dela, lehen 2022ko abenduaren 31ra arte zen bitartean.

Además, en los casos en que los contribuyentes tengan obligación de declarar por percibir rendimientos brutos de trabajo entre 14.000 y 20.000 euros procedentes de más de un pagador o pagadora, se exonera del cumplimiento de dicha obligación para aquellos supuestos en los que la suma de las cantidades percibidas del segundo y restantes pagadores, por orden de cuantía, no supere en su conjunto la cantidad de 2.000 euros anuales. Es decir, en estos casos no estarán obligados a presentar declaración los contribuyentes que perciban rendimientos brutos de trabajo hasta el límite de 20.000 euros.

**Deducción para el fomento de la implantación de un sistema informático que garantice la integridad, conservación, trazabilidad, inviolabilidad y remisión de los ficheros que documenten las entregas de bienes y prestaciones de servicios**

Se adaptan los plazos para poder aplicarse la deducción, para ajustarla al nuevo calendario de implantación. Ello supone ampliar su aplicación hasta el 31 de



diciembre de 2023, cuando antes era hasta el 31 de diciembre de 2022.

### **Ohiko etxebizitzan eguzki energia elektrikoa hornitzeko inbertsioen kenkaria**

Energia berdearen iturriak bultzatzeko asmoz, kenkari berri bat proposatzen da zergadunaren ohiko etxebizitzan eguzki energia elektrikoa hornitzeko egindako inbertsioengatik.

Zehazki, bi motatako inbertsioak izango dira kengarriak: eguzki energia elektriko fotovoltaikoa ekoizteko balio duten elementu osoen eskurapenean egindakoak, eta eguzki energia elektriko fotovoltaikoko iturriak aprobetxatzea xede sozial nagusia duten entitateetako partaidetzak eskuratzeko egindakoak, betiere zergadunaren ohiko etxebizitza energiaz hornitzeko egiten direnean.

Kenkaria egindako inbertsioen %15ekoa izango da, eta zergadun bakoitzak hurrengo zergaldietan zehar aplikatzen dituen kenkarien

### **Deducción por inversiones para el suministro de energía eléctrica solar en la vivienda habitual**

Con el objetivo de impulsar las fuentes de energía verde, se propone una nueva deducción por las inversiones en el suministro de energía eléctrica solar en la vivienda habitual de la persona contribuyente.

Son objeto de esta deducción las inversiones efectuadas en la adquisición de elementos completos aptos para la producción de energía eléctrica solar fotovoltaica, o de participaciones en entidades cuyo objeto social principal sea el aprovechamiento de fuentes de energía eléctrica solar fotovoltaica, para el suministro de energía a la vivienda habitual de la o del contribuyente.

La deducción se cifra en un 15% de las inversiones efectuadas, y la suma de las deducciones practicadas por cada





batura ezin izango da 3.000 eurotik gorakoa izan.

contribuyente durante los sucesivos periodos impositivos no podrá superar la cifra de 3.000 euros.

### **Laguntza jakin batzuen salbuespena**

Salbuetsita geratzen dira 2022an, norberaren konturako langileei edo autonomoei ematen zaizkien ezohiko laguntza batzuk, covid-19aren ondorioak arintzeko hartutako neurrien barruan. Laguntza horiek salbuetsizat jo ziren 2020 eta 2021 ekitaldietarako, abenduaren 1eko 11/2020 Foru Dekretu-Arauaren bidez.

### **Exención de determinadas ayudas**

Se declaran exentas en 2022 determinadas ayudas extraordinarias que sean otorgadas a las personas trabajadoras por cuenta propia o autónomas, dentro las medidas adoptadas para paliar los efectos de la covid-19. Esas ayudas ya se declararon como exentas para los periodos 2020 y 2021, a través del Decreto Foral-Norma 11/2020, de 1 de diciembre.

### **Sozietateen gaineko zerga**

2022ko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioekin, honako aldaketak sartzen dira:

### **Impuesto sobre sociedades**

Con efectos a partir de 1 de enero de 2022 se introducen las siguientes modificaciones:

#### **Ondare sozietateak**

Sozietate bat ondare sozietatetzat hartzerakoan, ondasun higiezin

#### **Sociedades patrimoniales**

A efectos de determinar la consideración de patrimonial de una sociedad, se ajusta la



kontsiderazioa doitzen da, ondasun horiek edo haien gaineko eskubide errealak pertsona edo entitate lotuen artean lagatzen edo eratzen direnean.

Proposatzen da, ondasun higiezin horiek jarduera ekonomikoei atxikita dauden erabakitzeko, aplikatzekoak izantea pertsona fisikoen errentaren gaineko zergan jarduera ekonomikoak egiteari buruz jasotzen diren arau orokorrak.

**Kapital murrizpena ekarpenak itzuliz egiten den kasuetan aplikatzen den balorazio erregela**

Proposatzen da itzulketa horietan sortutako errentaren integrazioa, jasotako elementuen merkatuko balioaren eta partaidetzaren balio fiskalaren arteko aldeari lotzea, kontabilitate balioari lotu ordez.

consideración de los bienes inmuebles que sean objeto de cesión o de constitución de derechos reales que recaigan sobre los mismos, entre personas o entidades vinculadas.

Se propone que para considerar si dichos bienes inmuebles se encuentran afectos a actividades económicas, resultarán de aplicación las reglas generales sobre realización de actividades económicas previstas en el impuesto sobre la renta de las personas físicas.

**Regla de valoración en los supuestos de reducción de capital con devolución de aportaciones**

Se propone vincular la integración de la renta generada en tales devoluciones, a la diferencia entre el valor de mercado de los elementos recibidos respecto al valor fiscal de la participación, en vez de respecto al valor contable.



### **Enpresen kapitalizazioa sustatzeko erreserba**

Oro har, zerga ondorioetarako aintzat hartzen den ondare garbiaren gehikuntza kengarria %10etik %15era igotzea proposatzen da. Eta mikroenpresen eta enpresa txikien kasuan, %14tik %20ra igotzen da kenkaria.

### **Mozkinak nibelatzeko erreserba berezia**

Erreserbaren saldoak zerga ondorioetarako ondare garbiarekiko izan dezakeen muga 5 puntutan handitzea proposatzen da (%20tik %25era pasatzen da muga arrunta eta %25etik %30era mikroenpresen eta enpresa txikien kasuan).

Aplikatzeko denbora tarte 5 urtetik 10 urtera zabaltzea proposatzen da, eta aipatutako epean aurreikusitako helbururako aplikatu ez diren erreserbako zuzkiduren kasuan %10etik %30era igotzen da zuzketa positiboaren portzentajea.

### **Reserva para fomentar la capitalización empresarial**

Se propone, con carácter general aumentar del 10% al 15% el importe deducible del incremento del patrimonio neto a efectos fiscales. Y para el caso de microempresas y pequeñas empresas la deducción se incrementa del 14% al 20%.

### **Reserva especial para nivelación de beneficios**

Se propone incrementar en 5 puntos el límite de saldo de la reserva respecto al patrimonio neto a efectos fiscales (del 20% al 25% el límite ordinario y del 25% al 30% en el caso de microempresas y pequeñas empresas).

Se propone ampliar de 5 a 10 años el horizonte temporal para su aplicación, y se incrementa del 10% al 30% el porcentaje de la corrección positiva en el caso de dotaciones a la reserva no aplicadas en el citado plazo a la finalidad prevista.



**Kenkaria garapen jasagarria, ingurumenaren kontserbazioa eta hobekuntza eta energia iturrien aprobetxamendu eraginkorragoa bultzatzea xede duten proiektuen inbertsio eta gastuengatik**

Kuota likidoaren gaineko kenkariaren muga gaur egun indarrean dagoen % 35etik % 50era igarotzea proposatzen da. Gainera, muga berri hori benetan aplikatu ahal izateko, beharrezkoa da kenkari horri lotutako gutxieneko tributazio arauak egokitzea.

**Berrikuntza teknologikoaren eta software aurreratuaren kontzeptuen definizioa**

Definizioak Osloko Eskuliburu berriaren arabera zabaltzen dira. Bestalde, aipatzen da zer gastu ez diren ikerketa eta garapen jarduerengatik eta berrikuntza teknologikoengatik aplikatzen diren kenkariaren oinarriaren parte.

**Deducción por inversiones y gastos vinculados a proyectos que procuren el desarrollo sostenible, la conservación y mejora del medio ambiente y el aprovechamiento más eficiente de fuentes de energía**

Se propone que el límite de deducción sobre la cuota líquida pase del 35% vigente en la actualidad al 50%. Además, para que ese nuevo límite pueda resultar de aplicación efectiva, resulta necesario adecuar las reglas de tributación mínima en relación con esta deducción.

**Definición de los conceptos de innovación tecnológica y software avanzado**

Se amplían las definiciones en base al nuevo Manual de Oslo. Por otro lado, se citan algunos gastos que no forman parte de la base de las deducciones por actividades de investigación y desarrollo, y por actividades de innovación tecnológica.



## **Kenkaria enplegua sortzeagatik**

Alde batetik, kenkariaren zenbateko nominala aldatzea proposatzen da: urteko soldata gordinarekiko proportzionala (5.000 euroko mugarekin) izatetik, 7.000 euroko zenbateko finkoa izatera, kasu orokorrean. Eta 14.000 eurora, lan merkatuan sartzeko zailtasun bereziak dituzten kolektiboetako pertsonak kontratatzearen kasuan.

Bestetik, ezartzen da lan merkatuan sartzeko zailtasun bereziak dituzten kolektiboak zeintzuk diren erregelamendu bidez garatuko dela. Eta erregelamenduzko garapen hori onartzen ez den bitartean, foru arau honen xedapen iragankor bakarrak aurreikusten du kolektibo horiek Euskal Autonomia Erkidegoan indarrean dagoen araudiaren arabera zehaztuko direla, hura baita aldaketa hau egin aurretik indarrean zegoen araudia.

## **Deducción por creación de empleo.**

Por un lado, se propone modificar el importe nominal de la deducción: de ser proporcional al salario anual bruto (con límite de 5.000 euros) a una cuantía fija de 7.000 euros, para el caso general. Y a 14.000 euros para el caso de contratación de personas incluidas en alguno de los colectivos de especial dificultad de inserción en el mercado de trabajo.

Por otra parte, se remite a desarrollo reglamentario la determinación de los colectivos de especial dificultad de inserción en el mercado de trabajo. Y en tanto no se apruebe dicho desarrollo reglamentario, la disposición transitoria única de esta norma foral prevé que dichos colectivos se determinarán con arreglo a lo dispuesto en la normativa vigente en la Comunidad Autónoma del País Vasco, que constituye la regulación vigente con anterioridad a esta modificación.



**Parte hartzea mikroenpresek edo enpresa txikiek garatutako ikerketa eta garapeneko edo berrikuntza teknologikoko proiektuetan.**

2022an hainbat parametreri jarraipena ematea proposatzen da, 2020. eta 2021. urteetarako onartutako modu berean, betiere proiektuek baldintza batzuk betetzen badituzte.

- Proiektua garatzen duen entitateak ez du zergatik sorrera berriko entitate berritzailea izan behar.
- Ez zaio aplikagarri izango honako muga hau: zergadun batek bere taldearekin batera kenkarien batura ezin izango da izan 200.000 eurotik gorakoa hiru zergaldi jarraituetan.
- Proiektua egiten duen zergadunak, bere taldeko kide diren entitateekin batera, jaso dezaken gehieneko finantzaketa 200.000 eurotik 1.000.000 eurora pasatzen da.

**Participación en proyectos de investigación y desarrollo o innovación tecnológica desarrollados por microempresas o pequeñas empresas**

Se propone dar continuidad en 2022, en los mismos términos que se aprobó para los años 2020 y 2021, a una serie de parámetros, siempre y cuando los proyectos cumplan una serie de requisitos.

- La entidad que desarrolle el proyecto no tendrá por qué tener la consideración de entidad innovadora de nueva creación.
- No le será de aplicación el límite de que la suma de las deducciones por un contribuyente junto con su grupo no pueda exceder de 200.000 euros a lo largo de tres períodos impositivos consecutivos.
- La financiación máxima que puede recibir el contribuyente que realiza el proyecto, junto con las entidades que formen parte de su grupo, pasa de 200.000 euros a 1.000.000 de euros por proyecto.



## **Aparteko kenkaria mikroenpresetan eta enpresa txiki eta ertainetan inbertitzaegatik**

Proposatzen da jarraipena ematea, 2020. eta 2021. urteetarako onartutako termino berberetan, mikroenpresetan eta enpresa txiki eta ertainetan inbertitzeagatik aplikatzen den aparteko kenkariari.

Kuota likidoaren %10eko kenkaria enpresen akzio edo partaidetzak harpidetu edo eskuratzeagatik, baldin eta enpresa horiek mikroenpresak, enpresa txikiak edo enpresa ertainak badira. Kenkariaren gehieneko oinarria 100.000 euro da.

Kuota likidoaren %15eko kenkaria enpresa berrien edo sortu berrien akzio edo partaidetzak harpidetu edo eskuratzeagatik, baldin eta enpresa horiek mikroenpresak, enpresa txikiak edo enpresa ertainak badira. Kenkariaren gehieneko oinarria 150.000 euro da.

## **Deducción extraordinaria por inversión en microempresas, pequeñas y medianas empresas**

Se propone dar continuidad, en los mismos términos que se aprobó para los años 2020 y 2021, a la deducción extraordinaria por inversión en microempresas, pequeñas y medianas empresas.

Deducción del 10% de la cuota líquida por la suscripción o adquisición de acciones o participaciones en empresas que tengan la consideración de microempresa, pequeña o mediana: La base máxima de deducción es 100.000 euros.

Deducción del 15% de la cuota líquida por la suscripción o adquisición de acciones o participaciones en empresas de nueva o reciente creación, que tengan la consideración de microempresa, pequeña o mediana: La base máxima de deducción es 150.000 euros.



Kuota likidoaren %20ko kenkaria entitate berritzaile edo hazkunde prozesuan daudenen akzio edo partaidetzak harpidetu edo eskuratzeagatik, baldin eta enpresa horiek mikroenpresak, enpresa txikiak edo enpresa ertainak badira. Kenkariaren gehieneko oinarria 200.000 euro da.

### **Kultura sustatzeko pizgarriak**

Proposatzen da film luze zinematografikoen eta ikus-entzunezko serieen produkzio espainiarretan egindako inbertsioengatik kenkariaren portzentajea, oro har, %30etik %35era igotzea, eta %40tik %45ra euskaraz filmatutako obren kasuan. Era berean, egindako ekoizpen bakoitzeko kenkariaren gehieneko zenbatekoa 2,5 milioi eurotik 10 milioi eurora igotzen da.

Atzerriko ekoizpenen kasuan, kenkariaren portzentajea %25etik %35era igotzen da, eta egindako ekoizpen bakoitzeko kenkariaren gehieneko zenbatekoa 2,5 milioi eurotik 10 milioi eurora igotzen da.

Deducción del 20% de la cuota líquida por la suscripción o adquisición de acciones o participaciones de entidades innovadoras o en proceso de crecimiento, que tengan la consideración de microempresa, pequeña o mediana: La base máxima de deducción es 200.000 euros.

### **Incentivos para el fomento de la cultura**

Se propone que el porcentaje de deducción de por inversiones en producciones españolas de largometrajes cinematográficos y de series audiovisuales suba del 30% al 35% con carácter general, y del 40% al 45% para las obras rodadas en euskera. Asimismo, el importe máximo de deducción por cada producción realizada sube de 2,5 millones a 10 millones de euros.

En el caso de producciones extranjeras el porcentaje de deducción sube del 25% al 35%, y el importe máximo de deducción por cada producción realizada sube de 2,5 millones de euros a 10 millones de euros.





**Ondasun entregak eta zerbitzu prestazioak dokumentatzen dituzten fitxategien osotasuna, kontserbazioa, trazabilitatea, bortxaezintasuna eta igorpena bermatzeko sistema informatikoaren ezarpena sustatzeko kenkaria**

Epeak egokitu dira kenkaria aplikatu ahal izateko, ezarpen egutegi berrira egokitzeko. Horrek esan nahi du 2023ko zerga ekitaldian ere aplikatuko dela, lehen 2022an bukatzen zen bitartean.

**Arrisku kapitaleko sozietate eta funtsen araubide berezia**

Alde batetik, aurreikusten da akzio bihur daitezkeen obligazioen bihurketan sozietate edo funts horietarako agerian jartzen den errenta geroratu daitekeela akzio horiek eskualdatu arte. Horrela, ezartzen da bihurketatik eratorritako errenta ez dela integratuko zerga oinarrian, eta arrisku kapitaleko entitateak harpidetutako akzio berriek obligazio bihurgarrien eskurapen balioa eta data gordetzen dituztela. Era horretan, obligazioen jabetza eta, ondorioz, akzioen

**Deducción para el fomento de la implantación de un sistema informático que garantice la integridad, conservación, trazabilidad, inviolabilidad y remisión de los ficheros que documenten las entregas de bienes y prestaciones de servicios**

Se adaptan los plazos para poder aplicarse la deducción, para ajustarla al nuevo calendario de implantación. Ello supone ampliar su aplicación también al ejercicio fiscal 2023, cuando antes finalizaba en el 2022.

**Régimen especial de sociedades y fondos de capital-riesgo**

Por una parte, se prevé el diferimiento de la renta que se ponga de manifiesto para dichas sociedades o fondos en la conversión de obligaciones convertibles en acciones hasta la transmisión de estas últimas. De esa manera, se establece que no se integra en la base imponible la renta derivada de la conversión, y que las nuevas acciones suscritas por la entidad de capital-riesgo conservan el valor y la fecha de adquisición de las obligaciones convertibles de las que



edukitza egitate bakar eta linealtzat hartzen dira zerga ondorioetarako, eta bihurketak ez du distorsiorik eragiten zentzu horretan.

Bestalde, sorrera berriko entitate berritzaileen eta hazkunde prozesuan daudenen finantza iturriak errazte aldera, berezitasun bat aurreikusten da horrelako entitateek arrisku kapitaleko funts eta sozietateekin formalizatutako finantza kontratuetarako, haien ordainsariak bi osagai dituenen: diruzko zati bat eta gauzako beste zati bat, entitate finantzatuaren akzio edo partaidetzak erosteko eskubide gisa gauzatzen dena. Tratamendu fiskal hori aplikatu ahal izateko, alderdi guztiek haren aplikazioa hautatu behar dute, eta aukera hori Ogasun eta Finantza Departamentuari jakinarazi behar diote ondorioak izan behar dituen lehen zergaldia amaitu baino lehen.

proceden. De este modo, la posesión de las obligaciones y la consiguiente tenencia de las acciones son consideradas como un hecho único y lineal a efectos fiscales, sin que el hecho de la conversión suponga una distorsión en este sentido.

Por otra parte, con el objeto de facilitar las posibles fuentes de financiación de las entidades innovadoras de nueva creación y de las entidades en proceso de crecimiento, se prevé una especialidad para los contratos de financiación formalizados por éstas entidades con fondos y sociedades de capital-riesgo, cuya retribución se componga de una parte dineraria y otra en especie en forma de derechos de compra de acciones o participaciones de la entidad financiada. Para poder aplicar este tratamiento fiscal, todas las partes deberán optar por su aplicación, comunicando dicha opción al Departamento de Hacienda y Finanzas antes de la finalización del primer periodo impositivo en el que deba surtir efectos.



## **Kapital Aldakorreko Inbertsio Sozietateak**

Zergaren foru arauari gehitzen zaio kapital aldakorreko inbertsio sozietate jakin batzuetako bazkideek estatuan aplikatu behar duten araubide iragankorra.

Lurralde erkidean betekizun objektibo fiskal murriztaileagoak ezarri dira entitate horietako bazkideentzat, eta, baita entitate horiek desegin eta likidatzeko erabakia hartzea ere.

Entitateen desegite eta likidazio horretan, bai likidatzen den sozietateak eta bai bertako bazkideek araubide iragankor bat dute aplikagarria lurralde erkidean. Hala ere, araubide hori osatu gabe geratzen da bazkideak Gipuzkoako pertsonak edo entitateak direnean, haiek ez baitaude lurralde erkideko araudiaren mende, eta horrek distortsioak eragiten ditu zerga ordainketan. Hori dela eta, araubide iragankorra egokitzen da entitate horietako pertsona eta entitate bazkideak Gipuzkoarrak diren kasurako.

## **Sociedades de Inversión de Capital Variable**

Se incorpora a la normativa foral del impuesto el régimen transitorio aplicable a nivel estatal por las socias y socios de determinadas sociedades de inversión de capital variable de territorio común.

Se han establecido en territorio común unos requisitos objetivos de carácter fiscal más restrictivos a las socias y los socios de dichas entidades, y también la posibilidad de éstas de acordar su disolución y liquidación.

Esa disolución con liquidación, en territorio común está sujeta a un régimen transitorio tanto para la sociedad que se liquida como para sus socias y socios. No obstante, el mismo queda incompleto en el caso de que las personas o entidades socias sean guipuzcoanas, puesto que no quedan sometidas a la normativa de territorio común, y ello genera distorsiones en la tributación. Por ello, se adecua el régimen transitorio para las personas y entidades socias guipuzcoanas de las citadas entidades.



## **Ondarearen gaineko zerga**

2021eko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioekin, honako aldaketak sartzen dira:

Salbuetsita geratzen dira sorrera berriko entitate berritzaileen akzio eta partaidetzen gaineko aukera eskubideak entitate horietako langileek jasotzen dituztenean, 2021erako zerga aldaketa jakin batzuk onesten dituen apirilaren 15eko 3/2021 Foru Arauan egindako aldaketarekin bat etorriz.

2022ko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioekin, honako aldaketak sartzen dira:

Euskal Kultur Ondarea osatzen duten ondasunen salbuespenen erregulazioa maiatzaren 9ko 6/2019 Legean aurreikusitako erregulazio berrira egokitzen da. Horrela, zergan salbuetsita egongo dira Euskal Kultur Ondarean babes ertain edo bereziko kultur ondasun gisa sartuta dauden ondasunak.

## **Impuesto sobre el patrimonio**

Con efectos a partir de 1 de enero de 2021 se introducen las siguientes modificaciones:

Se declara la exención de los derechos de opción sobre acciones y participaciones de entidades innovadoras de nueva creación recibidos por personas trabajadoras de las mismas, en línea con la modificación introducida en la Norma Foral 3/2021, de 15 de abril, por la que se aprueban determinadas modificaciones tributarias para el año 2021.

Con efectos a partir de 1 de enero de 2022 se introducen las siguientes modificaciones:

Se adecúa la regulación de las exenciones de los bienes integrantes del Patrimonio Cultural Vasco a la nueva regulación prevista en la Ley 6/2019, de 9 de mayo. Así, estarán exentos del impuesto los bienes que integran el Patrimonio Cultural Vasco en calidad de bienes culturales de protección media o especial.



Bestalde, arte-gaien eta zaharkinen salbuespena egokitzen da, Espainiako Ondare Historikoari buruzko ekainaren 25eko 16/1985 Legearen erregelamenduzko garapenean aurreikusitako balioei soilik aplikatzeko; izan ere, aipatutako 6/2019 Legeak, berak indargabetutakoak ez bezala, ez du horri dagokionez xedapen baliokiderik jasotzen.

### **Kooperatiben zerga araubidea**

Lan elkartuko eta ustiapen komunitarioko kooperatiba txikiak kooperatiba bereziki babestutzat jotzeko beharkizuna 11/2019 Legean, besteren konturako langileak kontratatzeko aurreikusitako mugetara egokitzen da.

Etxebizitza kooperatibak bereziki babestutzat jotzeari dagokionez, doikuntzak egiten dira: alde batetik, zerga eremuan ere onartzen da kooperatibistak ez diren hirugarrenei etxebizitzaren %30eraino saldu ahal izatea finantza arrazoiengatik; eta, bestetik, kooperatiba desagiteko atalaseari buruzko baldintzak atalase handiago bat aurreikusten

Por otra parte, se ajusta la exención de los objetos de arte y antigüedades quedando ésta vinculada en exclusiva a los valores previstos reglamentariamente en desarrollo de la Ley 16/1985, de 25 de junio, del Patrimonio Histórico Español, toda vez que la citada Ley 6/2019, a diferencia de la derogada por ella, no contiene ninguna disposición equivalente.

### **Régimen fiscal de las cooperativas**

Se acomoda la consideración de cooperativa especialmente protegida relativa a las cooperativas pequeñas de trabajo asociado y de explotación comunitaria, a los límites respecto a la contratación de personas trabajadoras por cuenta ajena previstas en la Ley 11/2019.

Se adecúa la consideración de especialmente protegidas de las cooperativas de vivienda: por una parte, se asume también en el ámbito tributario la posibilidad de la venta de hasta un 30% de las viviendas a terceros no cooperativistas por razones financieras; y por otra, el requisito relativo al umbral para la disolución de la cooperativa recoge la



du baldin eta ezkutuko akatsei entitate sustatzaile gisa erantzuteko aurreikusitako berme epeak eta legezko epeak, edo estatutuek edo entitate publikoekin sinatutako lankidetzak hitzarmenek, hala aurreikusten badute.

Aldaketak sartzen dira sozietateen gaineko zergari lotutako entitate bazkideek jasotako kooperatiba itzulkinen zergapetze bikoitza ezabatzearen erregulazioan, eta, horrela, kuotan kenkaria aplikatu beharrean itzulkinak zerga oinarrian ez integratzea ezartzen da; horrekin homogeneizatzen da zergapetze bikoitzak sozietateen gaineko zergan duen tratamendua, eta gainerako lurralde historikoekin harmonizatzen da.

### **Zergen Foru Arau Orokorra**

Ahalbidetu egiten da ordainketak geroratu eta zatikatzeko prozedura ebazteko ohiko epea luzatzea, gehienez 12 hilabete arte, tasatuta dauden zirkunstantzia jakin batzuek prozedura hori ebaztea eragozten dutenean.

Informazioa emateko betebeharrak ezartzen da akzioen azken onuradunen identifikazioa

previsión de un umbral superior cuando el plazo de garantía y el legal previsto para responder de los vicios ocultos como entidad promotora, o los estatutos o convenios de colaboración suscritos con entidades públicas así lo prevean.

Se modifica la regulación relativa a la eliminación de la doble imposición de retornos cooperativos percibidos por parte de entidades socias sometidas al impuesto sobre sociedades, sustituyendo la deducción en la cuota por la no integración en la base imponible, de manera que se homogeneiza el tratamiento de la doble imposición en el impuesto sobre sociedades y se armoniza con el resto de Territorios Históricos.

### **Norma Foral General Tributaria**

Se posibilita ampliar hasta en 12 meses máximo, el plazo ordinario para resolver el procedimiento de aplazamiento y fraccionamiento de pago, cuando concurren determinadas circunstancias tasadas que obstaculicen su resolución.

Se establece una obligación de información para las personas y entidades que



ezagutzen duten edo ezagutzeko moduan dauden pertsona eta entitateentzat, apirilaren 12ko 5/2021 Legeak sartu duen aldaketaren ildotik (5/2021 Legea, apirilaren 12koa, zeinaren bidez aldatzen baitira Kapital Sozietateen Legearen testu bategina, uztailaren 2ko 1/2010 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onetsia, eta finantza arloko beste arau batzuk, sozietate kotizatueta akziodunek epe luzera inplikatzeari dagokionez).

### **Beste neurri batzuk**

2022an jarraipena ematen da, 2021erako onartutako baldintza berberetan, toki erakundeek Gipuzkoako Toki Ogasunak arautzen dituen uztailaren 5eko 11/1989 Foru Arauaren II. tituluko III. kapituluaren 3. atalaren arabera ezarritako udal tasen zenbatekoaren gaineko aparteko hobariak onartzeko aukerari.

Hobari horiek jasotzeko arrazoiak COVID-19aren osasun krisiarekin lotuta egon behar

conocieran o estuvieran en disposición de conocer la identificación de los beneficiarios últimos de las acciones, en línea con la modificación introducida por la Ley 5/2021, de 12 de abril, por la que se modifica el texto refundido de la Ley de Sociedades de Capital, aprobado por el Real Decreto Legislativo 1/2010, de 2 de julio, y otras normas financieras, en lo que respecta al fomento de la implicación a largo plazo de los accionistas en las sociedades cotizadas.

### **Otras medidas**

Se da continuidad en 2022, en los mismos términos que se aprobó para 2021, a la posibilidad de que las entidades locales puedan aprobar bonificaciones extraordinarias sobre la cuantía de las tasas municipales establecidas en virtud de la sección 3.ª del capítulo III del título II de la Norma Foral 11/1989, de 5 de julio, reguladora de las Haciendas Locales de Gipuzkoa.

Estas bonificaciones deberán estar motivadas por la crisis sanitaria del COVID-



dira, eta krisi horrek bereziki eragindako kolektiboei aplikatu ahal izango zaie.

## Sortutako ondorioak

Aztertutako arauak onartutako neurri garrantzitsuenak 2022/01/01ean sartu ziren indarrean. PFEZaren, sozietateen gaineko zergaren eta ondarearen gaineko zergaren kasuan, horrek esan nahi du eragina duela 2022ko ekitaldi fiskalean. Ekitaldi horretako aitortpenak aurkezteko epea oraindik ez da amaitu. Beraz, ez dago daturik sortutako ondorioak eta proposatutako helburuen eta lortutako helburuen arteko bat-etortzea aztertu ahal izateko.

## Araugintza garatzeko beharrak

Foru arau horrek garapen hauek izan ditu:

**18/2022 Foru Dekretua, azaroaren 22koa, pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren erregelamendua, sozietateen gaineko zergaren erregelamendua eta zerga berrikuspenaren erregelamendua aldatzen dituen**

19 y podrán aplicarse a colectivos especialmente afectados por la misma.

## Efectos producidos

Las medidas más importantes aprobadas por la norma analizada entraron en vigor el 01/01/2022. Para el caso del IRPF, impuesto sobre sociedades e impuesto sobre el patrimonio ello significa que tiene incidencia en el ejercicio fiscal de 2022. El plazo de presentación de las declaraciones correspondientes a ese ejercicio todavía no ha finalizado. Por tanto, no se dispone de los datos para poder analizar ni los efectos producidos ni la correspondencia entre objetivos propuestos y objetivos alcanzados.

## Necesidades de desarrollo normativo

La referida norma foral ha tenido los siguientes desarrollos reglamentarios:

**Decreto Foral 18/2022, de 22 de noviembre, por el que se modifican los reglamentos de los impuestos sobre la renta de las personas físicas y sobre sociedades, y el reglamento de revisión tributaria**





## Pertsona fisikoen errentaren gaineko zerga

- Lekualdatutako pertsonen araubide bereziaren erregulazioa egokitzen du zergaren foru arauan xedatutakoarekin bat etor dadin: araubide horren arabera tributatzea aukeratzeko duen lekualdatutako pertsonek zer dokumentazio aurkeztu behar duten zergaren autoliquidazioarekin batera, lekualdatzearen arrazoa sorrera berriko entitateetan inbertitzea denean; horrez gain, doitu eta argitzen du nola gauzatu behar den araubide berezia aplikatzearen aldeko hautua.
- Araubide iragankor bat ezartzen du lekualdatutako pertsonen araubide bereziari dagokionez. Araubide hori zergadunei aplikatuko zaie baldin eta 2021eko abenduaren 31ra arte indarrean izan den testuaren arabera aplikatu badute araubide berezia eta 2022ko urtarrilaren 1ean haren iraunaldia agortu ez badute.

## Impuesto sobre la renta de las personas físicas

- Adapta la regulación del régimen especial para personas desplazadas a lo dispuesto en la norma foral que regula el impuesto. Regula la documentación que la persona desplazada que opte por tributar de acuerdo con este régimen deberá adjuntar junto con la autoliquidación del impuesto –cuando el motivo del desplazamiento sea la inversión en entidades innovadoras de nueva creación–, y ajusta y clarifica el ejercicio de la opción por la aplicación del régimen especial.
- Introduce un régimen transitorio que será de aplicación, en relación con el régimen especial para personas desplazadas, para las y los contribuyentes que vinieren aplicando el régimen en su redacción vigente hasta el 31 de diciembre de 2021 y que a 1 de enero de 2022 no hubieran agotado el periodo de duración del mismo.



## Sozietateen gaineko zerga

- Lan merkatuan sartzeko zailtasun bereziak dituzten kolektiboen zehaztapena garatzen du, Sozietateen gaineko Zergaren Foru Arauaren 66. artikulua enplegua sortzeagatik arautzen duen kenkari handitua aplikatzearen ondorioetarako.

## Arauaren aplikazioagatik judizializatutako kasuak

Orain arte, ez da judizializazio kasurik izan aplikazioan.

## Laburbilduz

2022ko zerga ekitaldiari dagozkion aitortpenak aurkezteko zain, eta orain arte eskuragarri dauden datuak oso mugatuak izan arren, esan daiteke aztertutako foru araua modu eraginkorrean bete dela, aplikatzeko inolako arazorik gabe, inolako eragozpen berezirik gabe, eta orain arte ez da judizializaziorik egin bere aplikazioan.

## Impuesto sobre sociedades

- Desarrolla la determinación de los colectivos de especial dificultad de inserción en el mercado de trabajo, a efectos de la deducción incrementada por creación de empleo a que se refiere el artículo 66 de la Norma Foral del Impuesto sobre Sociedades.

## Casos de judicialización por aplicación de la norma

Hasta la fecha no se ha producido ningún caso de judicialización en su aplicación.

## En resumen

A la espera de la presentación de las declaraciones correspondientes al ejercicio fiscal de 2022, y aunque los datos disponibles hasta la fecha son muy limitados, se puede decir que la norma foral analizada se ha puesto en cumplimiento de manera efectiva, sin ningún tipo de problemas en su aplicación, sin ningún contratiempo en especial, y hasta la fecha no se ha producido ningún caso de judicialización en su aplicación.